

**EITB MEDIA, S.A.U.-REN ENPLEGU DEIALDI  
PUBLIKOA “SAREETAKO TEKNIKARIA”  
LANPOSTUKO OINARRIAK**

## AURKIBIDEA

Sarrera

### 1. *Prozesu guztietarako arau orokorrak*

- 1.1. Ebaluazio Epaimahaia.
- 1.2. Argitalpenak: deialdiak argitaratzea, prozesuari loturiko argitalpenak eta erreklamazio-prozedura.
- 1.3. Izena emateko prozedura.
- 1.4. Prozesu guztietarako betekizunak.
- 1.5. Lanpostu finakoak esleitzeko arauak.
- 1.6. Desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-erreserba.
- 1.7. Hautaketa-prozesuko datuak babestea eta kudeatzea.

### 2. *Oinarri hauetan eskainitako kategoriarako enplegu-deialdi publikoari buruzko arau espezifikoak*

- 2.1. Ebaluazio Epaimahaia.
- 2.2. Plazak eta sistema.
- 2.3. Lanpostuaren profila.
  - 2.3.1. Lanpostuaren eta funtzio/zeregin nagusien deskribapena.
- 2.4. Berariazko betekizunak.
  - 2.4.1. Titulazioa.
  - 2.4.2. Hizkuntza-eskakizunak.
  - 2.4.3. Gidabaimena.
- 2.5. Egin beharreko probak.
- 2.6. Merezimenduen balorazioa.
  - 2.6.1. Merezimendu profesionalak.
  - 2.6.2. Merezimendu akademikoak.
- 2.7. Plazak esleitzeko prozesua: azken kalifikazioak, berdinketa hausteko irizpideak eta azken esleipena.
- 2.8. Lan-poltsa.

### 3. *Eraskinak*

1. Eranskina. Gai-zerrenda.
2. Eranskina. Eremu funtzionalak.
3. Eranskina. Oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuan IZENA EMATEKO gida espezifikoa.
4. Eranskina. MEREZIMENDU PROFESIONALAK ETA AKADEMIKOAK aurkezteko eta ziurtatzeko gida.

## SARRERA

Oinarri hauen xedea EITB MEDIA, S.A.U. ren zerbitzuko lan-kontratuko langile finko gisa "Sareetako Laguntzailea" izeneko enplegu publikorako deialdia egiteko arauak ezartzea da.

EITB MEDIA, S.A.U, zuzenbide pribatuaren mendeko ente publikoa denez, oinarri hauetan deskribatutako hautaketa-sistema ez da oposizio-lehiaketa motakoa izango, ezta lehiaketa motakoa ere, eta ez die horien araubide juridikoari jarraituko.

Enplegu-deialdi honen ondoriozko plaza finkoak eta aldi baterako lan-kontratuak lan-kontratu izango dira, eta lan-zuzenbide erkidea eta EITB MEDIA, S.A.U. ren hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaizkie, ezertan eragotzi gabe aplikatu beharreko arau eta printzipio orokorrak.

Horiek horrela, EITBko Zuzendaritza Nagusiarekin eta Administrazio Kontseiluarekin bat etorritik, eta "Euskal Irrati Telebista-EiTB" erakunde publikoa sortzeko maiatzaren 20ko 5/1982 Legea aldatzen duen 8/1998 Legean ezarritako merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraiki, EITB MEDIA, S.A.U. ren "sareetako teknikaria" bi lanpostu finko esleitzeko enplegu-deialdi publikoa irekitzen da, oinarri hauetan deskribatutako baldintzetan

### 1. PROZESU GUZTIETARAKO ARAU OROKORRAK

#### 1.1. EBALUAZIO EPAIMAHAIA

Langile finkoak ente publikoko eta enteanen sozietateetako plantillan sartzeko arauen arabera, Ebaluazio Epaimahaia arduratuko da prozesu bakoitzeko proben jarraipena egiteaz eta probak epaitzeaz. Epaimahaia enpresaren zuzendaritzako ordezkariak, langileen ordezkariak eta EITB ente publikoaren Administrazio Kontseiluak izendatutako kanpoko pertsona independenteek osatuko dute.

Ebaluazio Epaimahaiari dagokio hautaketa-prozesua kudeatzea, administratzea eta ebaztea, ente publikoari eta horren mendeko sozietateei aplikatu beharreko barne-arauen arabera, eta, orobat, hari dagokio hautaketa-prozesua behar bezala kudeatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea.

Ebaluazio Epaimahaiak pertsona fisiko edo juridiko espezializatuei agin diezaieke probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea.

#### 1.2. ARGITALPENAK: DEIALDIAK ARGITARATZEA, PROZESUARI LOTURIKO ARGITALPENAK ETA ERREKLAMAZIO-PROZEDURA

Langile Finkoak EITB Taldeko plantillan sartzeko arauen arabera, hautaketa-prozesu bakoitzaren deialdia eta egutegia EITBren web-orrian argitaratuko dira (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>). Horren bidez kudeatuko dira, halaber, prozesuaren garapenari buruzko argitalpen eta komunikazio guztiak.

Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez **30 egun naturaleko** epean, prozesu bakoitzean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Zerrenda horretan adieraziko da dagokion baztertzeko arrazoia.

**3 egun naturaleko** epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideek izan ditzaketen akatsak zuzentzeko, zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazio horiek ebatzi ondoren, prozesu bakoitzean onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

### 1.3. IZENA EMATEKO PROZEDURA

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute izena eman nahi duten hautaketa-prozesu bakoitzeko. Onartua izateko eta, hala badagokio, hautaketa-prozesuetan parte hartzeko, hauek egin beharko dira:

- Hautagaitza EUSKAL IRRATI TELEBISTA ente publikoaren webgunean (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>) behar bezala erregistratu, oinarrietan deskribatutako zehaztapen eta baldintzen arabera.
- Izena emateko inprimakiari eskatutako dokumentazioa erantsi, PDF formatuan, deialdiaren betekizunei jarraikiz.
- Izena emateko inprimakiari oinarri hauen 2.6 atalean deskribatutako merezimendu profesional eta akademiko puntuagarriak erantsi, PDF formatuan.

Ebaluazio Epaimahaiak beretzat gordetzen du hautagaiak aurkeztutako dokumentazioa egiazkoa dela egiaztatzeko eskubidea, dagozkion lege-ondorio guztiekin.

Beste bideren batetik jasotako eskaerak ez dira onartuko. Era berean, oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak baztertu egingo dira. .

**Izena emateko eskaerak aurkezteko epea 2026ko ekainaren 8an hasiko da, 13:00etan, eta 2026ko ekainaren 23an amaituko da, 13:00etan, egun biak barne.**

Izena emateko eskaera aurkezteak berekin ekarriko du hautagaiak lanpostuen deialdi honetako baldintzak onartzea.

Izen emateko eskaeran, atal hauek bete beharko dira:

- a) Datu pertsonalak: izen-abizenak, NANA eta jaioteguna.
- b) Harremanetarako datuak: telefono-zenbakia eta helbide elektronikoa.
- c) Titulu akademiko egiaztatua.
- d) Hizkuntza-eskakizun egiaztatua.
- e) B gidabaimen egiaztatua.
- f) Aurkeztutako merezimenduen egiaztagiria, arau espezifikoetan ezarritakoaren arabera.

*Oinarri hauetan jasotako hautaketa-prozesuan izena emateko gida espezifikoak dakar 3. ERANSKINAK.*

#### **1.4. PROZESU GUZTIETARAKO BETEKIZUNAK**

Hauek dira hautaketa-prozesuetan onartzeko betekizun orokorrak:

*a) Europar Batasuneko estatu kide bateko naziotasuna edukitzea.*

Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek, nazionalitatea edozein dela ere, eta zuzenbidez banatuta ez badaude; horrez gain, beren ondorengoek parte hartu ahal izango dute, baita, zuzenbidez banatuta ez badaude, ezkontideenek ere, baldin eta, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanda ere, gurasoen kontura bizi badira.

Halaber, parte hartu ahalko dute Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen eta langileen joan-etorri librea aplikatzekoa duten nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartzen direnek ere.

*b) Deialdiaren xede den lanpostuaren berezko zereginak eta funtzioak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea, hargatik eragotzi gabe Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako arrazoizko egokitzapen- eta doikuntza-neurriak aplikatzea, indarrean dagoen bertsio kontsolidatuan.*

Alde horretatik, proba egokitzeko eskaera inskribatzen den unean egin beharko da, oinarri hauen 2.5 apartatuan xedatutakoaren arabera.

*c) Hamasei urte edo gehiago izatea, eta nahitaezko erretirorako adina ez izatea.*

*d) Eskatutako titulazioa, kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adieraziko dena, edukitzea edo haren agiriak jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean ez beste batean eman den betekizunen edo merezimenduen egiaztatze oro itzulita eta konpultsatuta aurkeztu beharko da.*

*e) Indarrean den arabidearen arabera, desgaitasun edo bateraezintasuna eragiteko legezko arrazoirik ez izatea, hark ematen dion aukera-eskubidea ezertan eragotzi gabe.*

*f) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.*

Plazen hautagaiek betekizun horiek beteta izan beharko dituzte prozesuen deialdia argitaratzen den egunean, eta haiek betetzen jarraitu beharko dute, harik eta plaza esleitu eta kontratua sinatu arte.

## **1.5. LANPOSTU FINKOAK ESLEITZEKO ARAUAK**

Ebaluazio Epaimahaiak ezin izango du deialdian eskainitako plaza kopurua baino handiagoa den hautagai kopurua proposatu langile finko bihurtzeko, kasu hauetan izan ezik:

- Hautatutako pertsonen uko egitean plaza esleitu edo kontratua sinatu aurretik.
- Aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen denean oinarrietan ezarritako betekizunen bat bete gabe dagoela edo hautagaiak ez duela zereginak betetzeko behar den gaitasun fisiko edo psikikoa.

Kasu horretan, Ebaluazio Epaimahaiak esleipen osagarriaren proposamena egingo die kasuan kasuko izangaiei, hautaketa-prozesua gainditu dutenen behin betiko zerrendako puntuazio-ordenari jarraikiz, eta aipatutako zirkunstantzien ondorioz hutsik geratu den plaza adina hautagai hautatuzat joko du.

## **1.6. DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ENPLEGU ERRESERBA**

Desgaitasuna duten pertsonen aldeko enplegu-erreserbaren printzipio gidariak eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, enplegu publikoko eskaintzetan kupo bat gordeko da desgaitasuna duten pertsonen bete dezaten, gai hori arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

Alde horretatik, desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetara aurkezten direnek % 33ko edo hortik gorako desgaitasun-maila izan beharko dute aitortuta dagokion organo eskudunean, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 59. artikuluan – desgaitasuna duten pertsonen buruzkoa – ezartzen duenez, enplegu publikoaren eskaintzetan, gutxienez, lanpostu hutsen ehuneko zazpi gordeko da desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonen artean betetzeko, eta halakotzat hartuko dira azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikuluan 2. paragrafoan zehaztutakoak, baldin eta hautaketa-prozesuak gainditzeko badituzte eta desgaitasuna eta zereginak betetzearekin bateragarriak direla egiaztatzen badute.

Ehuneko zazpiko gutxieneko erreserba honela egingo da: eskainitako plazen ehuneko bi, gutxienez, adimen-ezintasuna egiaztatzen duten pertsonen betetzeko izango dira, eta eskainitako gainerako plazak, berriz, aitortutako beste edozein desgaitasun-mota egiaztatzen duten pertsonen betetzeko.

Deialdi honetan ez da plazarik eskaintzen txanda erreserbatu horretarako

## 1.7. HAUTAKETA-PROZESUKO DATUAK BABESTEIA ETA KUDEATZEA

### **Arduraduna: Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?**

EITB – EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISIÓN VASCA ENTE PUBLIKOAK (Q0191001G), tratamenduaren arduradun gisa, langile-hautaketa kudeatzen du, bai beretzat, bai EITB Media, S.A.Urentzat (A48139224). Hala, tratamenduaren erantzule gisa dihardu, eta, halaber, ente publikoa da beretzat egiten duen tratamenduaren erantzulea.

**Helbidea:** Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo, Bizkaia

**Telefono-zk.:** 94 656 3000

**Eskubideak baliatu ahal izateko helbidea:** EITBren Aholkularitza Juridikoa, Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo (Bizkaia)

**Datuen Babeseko ordezkariaren harremanetarako datuak:** [dbo-dpd@eitb.eus](mailto:dbo-dpd@eitb.eus)

### **Helburua: Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?**

Plazak betetzeko behar diren datu pertsonalak kudeatzeko, eta behin betiko zein behin-behinean bete beharreko plazetarako hautaketa-prozesuen ondoriozko lan-poltsa osatzeko; hautaketa-prozesua gainditu ez duten pertsonen lan-poltsa osatzeko.

### **Legitimazioa: Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?**

Datuen tratamenduaren lege-oinarria da pertsonen baimena, zeina Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 6.1.a) artikulua arautzen baitu.

### **Hartzaileak: Nori jakinaraziko zaizkio zure datuak?**

Datuak ez dira lagako, salbu eta lagatzea beharrezkoa bada legez ezarritako betebeharrak betetzeko edo kanpo-hornitzaileen bidez zerbitzua emateko. Hautagaien eta hautatuen datuak EITBren webgunean argitaratuko dira zenbakizko kode baten bidez.

### **Nazioarteko transferentziak:**

Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horien nazioarteko transferentziak egingo direnik.

### **Kontserbazioa: Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datu pertsonalak?**

Datu pertsonalak lan-poltsan zauden bitartean gordeko dira; urtero eguneratuko dira, eta, poltsatik ateratzen bazara, urtebetez gordeko dira ondoren.

### **Eskubideak: Zer eskubide dituzu datuak eman ondoren?**

Pertsona orok eskubidea du EITBk berari buruzko datu pertsonalak tratatzen dituen ala ez jakiteko.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzendu daitezela eskatzeko, edo, hala badagokio, ezaba daitezela eskatzeko, besteak beste, datuak dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren xederako.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik gordeko ditugu.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuak tratatzearen kontra egin dezakete, beren egoera zehatzarekin lotutako arrazoiengatik. Enteak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta ezinbesteko legezko arrazoiengatik edo balizko erreklamazioen aurrean defendatzeko.

Interesdunek EITBri emandako datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, formatu egituratu batean —erabilera arruntekoa eta irakurketa mekanikokoa—, bere kasa deskargatu ahal izan ditzaten edo EITBtik beste entitate bati eskualdatzeko.

Interesdunak bere datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubideak balia ditzake arestian adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoa. Gainera, Datuak Babesteko Agentziari erreklamazio bat aurkez diezaioke, bereziki, eskubideak baliatzean esperotako ordaina jaso ez badu, [www.avpd.eus/hasiera/](http://www.avpd.eus/hasiera/) webgunean adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora idatziz.

### **Segurtasuna**

Datu pertsonalak ezarritako segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoan pean tratatuko dira, hots, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan xedatutakoekin.

## **2. OINARRI HAUETAN ESKAINITAKO KATEGORiarako ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOARI BURUZKO ARAU ESPEZIFIKOAK**

### **2.1. EBALUAZIO EPAIMAHAIA**

Langile finkoak ente publikoko eta entearen sozietateetako plantillan sartzeko arauen arabera, Euskal Telebistaren lanpostuak betetzeko, Ebaluazio Epaimahaia honela osatuko da:

- a) Giza Baliabideen zuzendariak, Zuzendaritza Nagusia ordezkatzuz, izango du epaimahaiburutza, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzako beste kide bati eskuordetu ahal izango dio.
- b) Giza Baliabideen Zuzendaritzako kide bat.
- c) Bete beharreko plaza dagoen zuzendaritzako kide bat edo arloko arduradun bat.
- d) Euskal Telebistako zuzendaritzetako kide bat.
- e) Administrazio Kontseiluak izendatutako bi kide.
- f) ETBko langile finko bat, bete beharreko plaza dagoen arlokoa edo atalekoa, Enpresa Batzordeak izendatua.

### **2.2. PLAZAK ETA SISTEMA**

"Euskal Irrati Telebista-EITB" erakunde publikoa sortzeko *martxoaren 27ko 5/1982 Legea aldatzen duen 8/1998 Legea* ezarritako merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera, **EITB**

**MEDIA S.A.U.**ren "Sareetako teknikari" bi plaza finko esleitzeko enplegu-deialdi publikoa irekitzen da, oinarri hauetan deskribatutako baldintzetan. Proba berberak erabiliko dira kategoria horretako lan-poltsa eratzeko.

Horrela, Bilboko lantokian "Sareetako Teknikari" bi plaza finko esleitzeko deialdia egiten da.

Hautaketa-sistema proban eta merezimenduen balorazioan oinarrituko da.

## **2.3. LANPOSTUAREN PROFILA**

### **2.3.1 Lanpostuaren deskribapena eta eginkizun/zeregin orokorrak**

#### **Deskribapena:**

Garraio-ekipamenduak eta seinalea emititzekoak muntatu, maneiatu eta mantentzeaz arduratzen da profesional hau, bai eta bere lantaldea osatzen duten langileez ere.

#### **Eginkizun/zeregin orokorrak:**

Funtzionatzeko egoera ezin hobean mantendu beharko ditu EITBren sareko emisiozentroetatik departamentuari esleitutako ekipamenduak eta horien elementu osagarriak.

Mikrouhin-ekipamendu finko eta eramangarrien mantentze-lanak egingo ditu, bai eta EITBri dagoeneko edo etorkizunean esleituko zaizkion bandetako argailu eta igorgailuenak ere (transceivers), dela programaren emisioenak nola sistema osagarrienak eta horien gehigarrienak (tripodeak, buruak, uhin-gidak, koaxialak, konektoreak, bateriak, egokigailuak, etab.).

Departamentuko arduradunak edo haren arduradun hierarkikoez eskatzen dituzten txosten periodiko edo puntualak egingo ditu.

Emankizunetarako seinale-garraioaren baldintzen azterketaren ardura izango du, eta izan daitezkeen arazo guztiak konpontzeko egoki iruditzen zaizkion konponbideak proposatuko ditu, produkzio ingeniariarekin elkarlanean.

Esleitu zaion materiala egoki instalatzearen arduraduna izango da, horren alderdi guztietan (garraioa, muntaketa, desmuntaketa, materialaren kontrola, egoeraren eta kontserbazioaren zaintza, etab.).

Bere esku jarritako ekipamenduen mantentze-lan eta konponketetarako beharrezko neurketatresnak erabiliko ditu.

Garraio-eta hedapen-sarearen funtzionamendu egokia zainduko du. Horretarako, bere esku jarritako egiaztapen-ekipamenduak eta teleaginte-eta teleseinale-sistemak baliatuko ditu.

Ezustekoen aurrean, egoki iruditzen zaizkio ekintzak abiaraziko ditu, azaldutako arazoak konpontzeko (konponbide alternatiboak edo aldi baterakoak), eta horren berri emango die berehala arduradun hierarkikoei.

Energia elektrikoaren kontrol-hornidurako ekipamendu guztiak (finkoak eta eramangarriak) zaindu, baliatu eta mantenduko ditu.

Teknologia berrien aplikazioaren ondorioz departamentura iristen diren ekipamendu edo sistema berrien kargu egingo da.

Produkzio-ekipamenduen seinalea hartzeaz arduratuko da, garraio-sarera entregatzeko.

Sareen alorrean beste enpresa batzuek eginiko lanak eta proiektu berriak kontrolatu eta gainbegiratuko ditu, dagokion txostena eginez.

## **2.4. BERARIAZKO BETEKIZUNAK**

Prozesuan onartua izateko, hautagaiak, izena emateko eskabidean eta ziurtagiri ofizial bidez, ondoren zehazten diren betekizun espezifikoko guztiak egiaztatu beharko ditu.

### **2.4.1. Titulazioa**

Hautagaiak honako titulazioren bat izan behako dute:

- Telekomunikazio Teknologiaren Ingeniaritzako Gradua.
- Ingeniaritza Elektronikoko Gradua.
- Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua.
- Informatika Ingeniaritzako Gradua.
- Antzeko titulu homologatua.

### **2.4.2. Hizkuntza-eskakizunak**

#### **2.4.2.1. Euskararen hizkuntza eskakizuna**

C1 titulua.

#### **2.4.2.2. Ingelesaren hizkuntza-eskakizuna**

B2 titulua.

### **2.4.3. Gidabaimena**

B gidabaimena izan beharko du hautagaiak.

## **2.5. EGIN BEHARREKO PROBAK**

Lanpostuak betetzeko probak Epaimahai Ebaluatzaileak zehaztu eta epaituko ditu, eta nahitaezkoak izango dira.

Epaimahai ebaluatzaileak pertsona fisiko eta/edo juridiko espezializatuei agindu ahal izango die probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzeko.

Probak bi zati izango ditu: proba teoriko bat test motako erantzunekin eta proba praktiko bat test motako erantzunekin. Proba horietan, lanpostuaren deskribapenari eta oinarri hauetako 2.3 atalean deskribatutako eginkizunei edo zereginei buruzko ezagutza espezifikoa ebaluatuko dira, 1. eranskinean zehaztutako gai-zerrendan zehaztuta.

Atal hau gehienez 75 punturekin baloratuko da. Proba teorikoa gehienez 40 punturekin baloratuko da, eta prozesuan jarraitzeko gutxienez 24 puntu lortu beharko dira; proba praktikoa gehienez 35 punturekin baloratuko da, eta prozesuan jarraitzeko gutxienez 21 puntu lortu beharko dira. Beraz, bi probak baztertzailak izango dira, eta beharrezkoa izango da horietako bakoitzean gutxienez puntuazioaren % 60 lortzea prozesuan jarraitzeko.

Probak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan egongo dira eskuragarri, eta izangaiak hizkuntza batean edo bestean egitea aukeratu ahal izango du azterketa egiteko unean.

Probak egiteari buruzko informazioa garaiz eta behar bezala jakinaraziko da EITBren webgune korporatiboan: <https://www.eitbtaldea.eus/eu/deialdiak-publicas.php>

Proba egokitu behar duten hautagaiak (giza baliabide materialak, laguntza eta parte hartzen duten probak egiteko behar dituen laguntza tekniko edo teknologiko lagunduak izangaiaren eskura jartzeko arrazoizko bitartekoak eta doikuntzak) izena emateko unean eskatu beharko dute, horretarako diseinatutako atalean.

## 2.6. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

### 2.6.1 Merezimendu profesionalak

Hautagaiak behar bezala egiaztatutako esperientzia balioetsiko da, eta gehienez **20** puntu jaso ahal izango dira.

**Merezimendu gisa kontuan hartuko den esperientzia:**

- a) Oinarri hauetan deskribatutako eginkizunak egitea Euskal Telebistan erregimen arrunteko lan kontratuarekin: **4 puntu** lan egindako urte bakoitzeko (gehienez **20** puntu).
- b) EITB MEDIAko lan-kontratuarekin eremu funtzional berean beste eginkizun batzuk egitea erregimen arruntean: **3 puntu** lan egindako urte bakoitzeko (gehienez 15 puntu).

Kasu horretan puntuazioa lortu ahal izateko, gutxienez 6 hilabeteko aldia zenbatu beharko da a) kasuan. Era berean, kasu horretan lortutako puntuazioa ezin izango da inola ere a) kasuan lortutakoa baino handiagoa izan.

Kategoria bakoitzaren eremu funtzionala oinarri hauen 2. eranskinean zehazten da

- c) EITB MEDIA, S.A.U.rentzat informazio zerbitzuak eta/edo edozein motatako entretenimendu-programak ekoizten dituzten erakundeek sinatutako kontratuari atxikitako oinarri hauetan deskribatutako eginkizunak betetzea: **1,4 puntu** lan egindako urte bakoitzeko (gehienez 7 puntu).

Kasu horretan, esperientzia honako hauen bidez lortu ahal izango da:

- Besteren konturako edo norberaren konturako lan-harreman arrunta EITB MEDIA, S.A.U.k kontratatutako erakunde batekin.
- Norberaren konturako harremana (langile autonomia den aldetik).

Azken 5 urteetan lan egindako aldiak batuz egingo da zenbaketa. Kontratu-urtetzat hartuko da **360** eguneko aldia. Urtebetetik beherako aldietan, lan-denbora proportzionalki hainbanatuko da.

Hautagai bakoitzak egiaztatutako aldi bakoitza lehen adierazitako kasuetako batean bakarrik balioetsiko da, eta ezinezkoa izango da aldi bera merezimendu gisa kontuan hartzea kasu horietako batean baino gehiagotan.

Lehen adierazi dugun moduan, **hautagaiak deialdia argitaratu den datara arte** —egun hori barne— izan duen lanbide-esperientzia hartuko da kontuan. Beraz, data horretatik aurrerako lanbide-esperientzia ez da zenbatuko.

Hautagai bakoitzak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, non jaso beharko baitira oinarri hauetan jasotako profilean eta funtzioetan egindako aldiak, egunetan adierazita, eta hautagaia zerbitzuan izan den entitateak behar bezala sinatuta eta zigilatuta aurkeztu beharko du.

Horrez gain, c) kasuan, hautagaiak egiaztatu beharko du zerbitzuak ematen dituen erakundearen eta EITB MEDIA SAUren artean sinatutako kontratuari atxikita dagoela.

Illo horretan, EITB MEDIA SAUrentzat zerbitzuak ematen dituzten erakundeek ezin badute egiaztatu hautagai-zerrenden esperientzia jarduera amaitzeagatik edo erakundea bera desegiteagatik, hautagai-zerrendak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, zerbitzua ematen den bitartean betetzen diren profila eta eginkizunak ezartzen dituen, eta berariaz adieraziko du zerbitzu hori EITB MEDIA SAUrentzat eman dela eta zerbitzua noiz hasi eta amaitu den, egun kopuruarekin batera.

Kasu bereko norberaren konturako harremanen kasuan, emandako zerbitzuen fakturak aurkeztu beharko dira, hautagaitzaren erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. Adierazpen horretan, honako hauek jasoko dira: zerbitzua emateko profila/funtzioak, prestazio horren egun-kopurua, eta zerbitzuaren hasiera- eta amaiera-datak.

Ziurtagirian deklaritzen diren aldi guztiak Gizarte Segurantzak egindako Lan Bizitzaren Txostena erantsiz egiaztatu behar dira, eta lehen adierazitako baldintzetan zenbatuko dira, deialdia argitaratzen den egunera arte, baita aitortutako aldiak bakarrik ere, Lan Bizitzaren Ziurtagirian jasotakoarekin bat datozenak, kontratatutako egunetan zein egunetan.

Ez dira merezimendu gisa zenbatuko enpresa batean egindako prestakuntza-aldiak, praktikak edo bekak, baldin eta ez bada lan-harremanik ezarri dagokion kontratuaren bidez.

Jasotzen diren eskabideen merezimenduak zenbatzeko ebazpena emateko, Epaimahai Ebaluatzaileak bidezko erabakiak hartuko ditu, betiere berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.

## 2.6.2 Merezimendu akademikoak

Merezimendu akademikoen atalak gehienez **5 puntu** balorazioa izango du, eta ondoren zehazten den moduan banatuko da.

### **1 Blokea – HIZKUNTZAK**

Hizkuntzak jakitea baloratuko da, 3 puntu gehienez, eta adierazitako mailaren egiaztagiri ofiziala erantsi beharko da. Hizkuntza bereko maila bat baino gehiago egiaztatzen bada, maila handienekoa baino ez da baloratuko.

Zehazki, honako balorazio hau emango da:

- Ingelesa: C1 titulu ofiziala edo goragokoa – 3 puntos.

### **2 Blokea – FORMAZIO OSAGARRIA**

Prestakuntza osagarria **gehienez 2 punturekin** baloratuko da. Atal honetan, lanpostuarekin lotutako prestakuntza arautua, lanpostuarekin lotutako arautu gabeko prestakuntza eta zeharkako prestakuntza ez-arautua hartuko dira kontuan.

Horiekin guztiekin batera, ikastetxeak emandako ziurtagiri ofizial bat aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, orduen edo ECTSen iraupena eta horiek egiteko datak jasoko dira.

Baremo hauen arabera puntuatuko dira:

- Lanpostuarekin lotutako prestakuntza arautua: puntu 1 prestakuntza bakoitzeko.
- Lanpostuarekin zerikusia duen arautu gabeko prestakuntza, 25 ordukoa edo gehiagokoa, edo 1ECTS: puntu 1 prestakuntza bakoitzeko.
- Arautu gabeko zeharkako prestakuntza, 25 ordukoa edo gehiagokoa, edo 1ECTS: puntu 1 prestakuntza bakoitzeko.

*4. ERANSKINEAN berriazko gida bat dago, oinarri hauetan baloratutako merezimendu profesionalak eta akademikoak sartzeari eta ziurtatzeari buruzkoa.*

## **2.7. PLAZAK ESLEITZEKO PROZESUA: AZKEN KALIFIKAZIOAK, BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK ETA AZKEN ESLEIPENA**

Egin beharreko probak amaitu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu ondoren, Epaimahai Ebaluatzaileak hautagai bakoitzak guztira lortutako puntuazioa konputatuko du. Puntuazio hori gehienez **100** izango da eta honela zenbatuko da: proba teoriko-praktikoan lortutako puntuak (**gehienez 75 puntu**) + merezimenduen balorazioan lortutako puntuak (**gehienez 25 puntu**). Prozesuan jarraitzeko, gutxienez **45** puntu lortu beharko dira proba teoriko-praktikoan.

Plazak beheranzko hurrenkeran esleituko dira, behin betiko emaitzen arabera (probaren emaitza eta merezimenduen emaitza batuta).

Bestalde, lanpostura sartzeko fasea EITBk finkatutako egutegiaren arabera egingo da.

Gutzizko puntuazioan berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauen arabera ezarriko da berdindutako pertsonen arteko lehentasun-ordena:

- a) kasuan baloratzeko moduko esperientzia gehien duenaren alde.
- b) kasuan baloratzeko moduko esperientzia gehien duenaren alde.
- Merezimendu profesionalak baloratzeko fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
- Merezimendu akademikoak baloratzeko fasean puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

Bestalde, Erakunde Publikoaren eta bere sozietateen plantillan Langile Finkoak Sartzeko Arauekin bat etorriz, baldin eta, sarbide orokorreko modalitatearen ondorioz, prozesua bete beharreko plaza-kopurua baino hautagai gehiago badago, prozesua gainditu eta plazarik lortu ez duten pertsonen lehentasunezko eskubidea izango dute probaldia hasieran hautatutako pertsonen gainditzeko ez dutelako sor daitezkeen lanpostu hutsak betetzeko.

Lehentasunezko eskubidea izango dute, halaber, kategoriatan beste plaza batzuk betetzeko, baldin eta Zuzendaritzak deialdi bat ebatzi eta hurrengo bi urteetan betetzea erabakitzen bada, beste lehiaketa bat egin beharrik izan gabe eta, betiere, aldez aurretik jatorrizko deialdian barne-sustapeneko fasea agortu bada.

Prozesu horren ondoriozko zerrendak EITBren webgunean argitaratuko dira.

## **2.8. LAN POLTSA**

Enplegu-deialdi publikoa amaitu ostean, hautagai bakoitzak lortutako emaitzak kontuan hartuta, oinarri hauetan adierazitako kategoriarako lan-poltsa sortuko da, eta horretara joko da kategoriatan eta profil horretako aldi baterako kontratazioetarako.

Prozesua gainditu arren plazarik lortzen ez duten hautagaiak automatikoki sartuko dira kategoriatan horretako lan-poltsa, behearazko ordenan, lortutako behin betiko emaitzen arabera. Lan-poltsa hori aldi baterako kontratazio modalitate guztiei aplikatuko zaie.

#### **OHAR GARRANTZITSUAK**

- Prozesu honi buruzko informazioa EITBren webgunean argitaratuko da (<https://www.eitbtaldea.eus/deialdi-publikoak.php>).
- Hautagaiaren ardura da argitaratutako berrien jarraipena egitea (izena emateko datak, ziurtagiriak ematea, azterketarako deialdia, etab.).
- Prozesuari buruzko kontsultak helbide elektroniko honetara bidali behar dira: [eitbdeialdiak@eitb.eus](mailto:eitbdeialdiak@eitb.eus) Hori izango da komunikazio-bide bakarra .

Kontsulta errepikatu eta esanguratsuenak webgunean prestatutako **“Ohiko galderak”** atalean argitaratuko dira .

**SAREETAKO TEKNIKARIA****TÉCNICO/A DE REDES****GAI ZERRENDA****TEMARIO****1. BLOKEA. ELEKTRIZITATEAREN OINARRIAK****BLOQUE 1. FUNDAMENTOS DE ELECTRICIDAD**

- Funtsezko magnitude elektrikoak.
- Korrante zuzena eta korrante alternoa.
- Potentzia elektrikoak eta potentzia-faktorea.
- Sistema monofasikoak eta trifasikoak.
- Babes elektrikoak eta lur-konexioa.
- Etenik gabeko elikatze-sistemak (SAI/UPS).
- Bateragarritasun elektromagnetikoa.
- Arrisku elektrikoen prebentzioa instalazio teknikoetan.
- Bateriak.
- Elikadura-iturriak. Tresneria eta neurriak.

- Magnitudes eléctricas fundamentales.
- Corriente continua y corriente alterna.
- Potencia eléctrica y factor de potencia.
- Sistemas monofásicos y trifásicos.
- Protecciones eléctricas y puesta a tierra.
- Sistemas de alimentación ininterrumpida (SAI/UPS).
- Compatibilidad electromagnética.
- Prevención de riesgos eléctricos en instalaciones técnicas.
- Baterías.
- Fuentes de alimentación. Instrumentación y medidas.

**2. BLOKEA. ELEKTRONIKAREN OINARRIAK****BLOQUE 2. FUNDAMENTOS DE ELECTRÓNICA**

- Elektronika analogikoaren eta digitalaren oinarritzko printzipioak.
- Osagaiak eta oinarritzko zirkuitu elektronikoak.
- Logika digitala.
- Seinale analogiko-digitalen eta digital-analogikoen bihurketa.
- Sinkronismoak eta tenporizazio digitala.
- Instrumentazio eta neurri elektronikoak.
- Ekipo elektronikoen oinarritzko diagnostikoa eta mantentze-lanak.

- Principios básicos de electrónica analógica y digital.
- Componentes y circuitos electrónicos básicos.
- Lógica digital.
- Conversión analógico/digital y digital/analógico.
- Sincronismos y temporización digital.
- Instrumentación y medidas electrónicas.
- Diagnóstico básico y mantenimiento de equipos electrónicos.

**3. BLOKEA. BIDEO DIGITALEKO SEINALEAK ETA IKUS-ENTZUNEZKO TEKNOLOGIAK****BLOQUE 3. SEÑALES DE VÍDEO DIGITAL Y TECNOLOGÍAS AUDIOVISUALES**

- Bideo digitalaren oinarriak.
- SD, HD, Full HD, UHD eta 8K ebazpenak.
- Irudi-maiztasunak.
- Formatu progresiboak eta gurutzatuak (interlaced)
- Kolore- eta laginketa-espazioak.

- Fundamentos de vídeo digital.
- Resoluciones SD, HD, Full HD, UHD y 8K.
- Frecuencias de imagen.
- Formatos progresivos y entrelazados.
- Espacios de color y muestreo.
- Tecnologías HDR y Wide Color Gamut (WCG).

- HDR eta Wide Color Gamut teknologiak (WCG).
- Bideo digitaleko interfazeak: SDI, HD-SDI, 3G-SDI eta 12G-SDI.
- IP sareen gaineko bideo-garraioa.
- Kameren kontzeptuak.
- Bideoa kodetzeko eta konprimitzeko printzipioak.
- MPEG-2, H.264/AVC eta H.265/HEVC formatuak.
- JPEG-XSrako eta konpresio-teknologia berrietarako sarrera.
- Bideo-seinale digitalak eta IPak neurtzeko eta monitorizatzeko parametroak.
- Kableak eta konektoreak.
- Interfaces de vídeo digital: SDI, HD-SDI, 3G-SDI y 12G-SDI.
- Transporte de vídeo sobre redes IP.
- Conceptos de cámaras.
- Principios de codificación y compresión de vídeo.
- Formatos MPEG-2, H.264/AVC y H.265/HEVC.
- Introducción a JPEG-XS y tecnologías emergentes de compresión.
- Parámetros de medida y monitorización de señales de vídeo digitales e IP.
- Cables y conectores.

#### 4. BLOKEA. AUDIO DIGITALEKO SEINALEAK

- Audio analogikoaren eta digitalaren oinarriak. AES/EBU audio-seinale digitalak. A/D eta D/A bihurketa.
- IPri buruzko audioa (AoIP). AES67 estandarrak, Dante.
- Audio digitala kodetzea eta konprimitzea. MPEG-1 Layer II, AAC eta HE-AAC formatuak. Kanal anitzeko eta murgiltze-audioko teknologietarako sarrera.
- SDI seinaleetan eta IP fluxuetan txertatutako audioa. Audio-bideoa sinkronizatzea eta lerrokatzea.
- Audio-seinaleak neurtzeko parametroak. Loudness eta EBU R128 gomendioa.
- Mikrofonoen teknologia eta mikrofono motak.
- Kableak eta konektoreak.

#### 5. BLOKEA. IRRATI-MAIZTASUNA ETA HARIRIK GABEKO KOMUNIKAZIOAK

- Hedapen erradioelektrikoaren printzipioak. Antenak eta transmisio-lineak. Modulazio analogikoak eta digitalak. Sistema transmisoreak eta hargailuak. Multiplexazioa.

#### BLOQUE 4. SEÑALES DE AUDIO DIGITAL

- Fundamentos de audio analógico y digital. Señales de audio digitales AES/EBU. Conversión A/D y D/A.
- Audio sobre IP (AoIP). Estándares AES67, Dante.
- Codificación y compresión de audio digital. Formatos MPEG-1 Layer II, AAC y HE-AAC. Introducción a tecnologías de audio multicanal e inmersivo.
- Audio embebido en señales SDI y en flujos IP. Sincronización y alineamiento audio-vídeo.
- Parámetros de medida de señales de audio. Loudness y recomendación EBU R128.
- Tecnología de micrófonos y tipos de micrófonos.
- Cables y conectores.

#### BLOQUE 5. RADIOFRECUENCIA Y COMUNICACIONES INALÁMBRICAS

- Principios de propagación radioeléctrica. Antenas y líneas de transmisión. Modulaciones analógicas y digitales. Sistemas transmisores y receptores. Multiplexación.

- Ikus-entzunezko ekarpenari aplikatutako haririk gabeko komunikazioak. Ikus-entzunezko seinaleen garraioari aplikatutako 4G eta 5G sare mugikorak.
- Transmisio- eta harrera-seinaleen potentzia eta kalitatea neurtzeko parametroak: BER, MER eta lotutako beste parametro batzuk.
- Neurketak eta neurketa-ekipamendua.

## **6. BLOKEA. IKUS-ENTZUNEZKO TRANSMISIO-, HARRERA-, EKARPEN- ETA HEDAPEN-SISTEMAK**

- Modulazioa, demodulazioa, kodetzea, deskodetzea. ASI interfazea.
- Ikus-entzunezko ekarpenerako lurreko lotura digitalen bidezko transmisio- eta harrera-kateak. Irrati-lotura digitalak eta mikrouhin-sistemak. COFDM. MRC.
- Ikus-entzunezko ekarpenerako lotura sateliteen bidezko transmisio- eta harrera-kateak. DVB-S eta DVB-S2/S2X arauak.
- DVB-T eta DVB-T2 arauak. LTDan oinarritutako hedapen-sistemak. SFN sareak.
- Zuntz optikozko loturak. Zuntz motak eta konektagarritasun optikoa.
- IPn oinarritutako ekarpen- eta banaketa-sistemak. IPri buruzko bideoa garraiatzeko protokoloak: SRT, RIST eta NDI.
- Neurketak eta neurketa-ekipamendua.

## **7. BLOKEA. SISTEMA INFORMATIKOAK ETA DATU-SAREAK**

- Sistema eragileen oinarriak. Windows eta Linux inguruneak.
- Ordenagailu pertsonalen eta zerbitzarien arkitektura. NAS eta SAN biltegiatze-sistemak.
- Sareko arkitekturak. Ethernet, Gigabit Ethernet eta 10 Gigabit Ethernet. OSI

- Comunicaciones inalámbricas aplicadas a la contribución audiovisual. Redes móviles 4G y 5G aplicadas al transporte de señales audiovisuales.
- Parámetros de medida de potencia y calidad de señales de transmisión y recepción: BER, MER y otros parámetros asociados.
- Mediciones y equipamiento de medida.

## **BLOQUE 6. SISTEMAS DE TRANSMISIÓN, RECEPCIÓN, CONTRIBUCIÓN Y DIFUSIÓN AUDIOVISUAL**

- Modulación, demodulación, codificación, decodificación. Interfaz ASI.
- Cadenas de transmisión y recepción mediante enlaces digitales terrestres para contribución audiovisual. Radioenlaces digitales y sistemas de microondas. COFDM. MRC.
- Cadenas de transmisión y recepción mediante enlaces satelitales para contribución audiovisual. Normas DVB-S y DVB-S2/S2X.
- Normas DVB-T y DVB-T2. Sistemas de difusión basados en TDT. Redes SFN.
- Enlaces de fibra óptica. Tipos de fibra y conectividad óptica.
- Sistemas de contribución y distribución basados en IP. Protocolos de transporte de vídeo sobre IP: SRT, RIST y NDI.
- Mediciones y equipamiento de medida.

## **BLOQUE 7. SISTEMAS INFORMÁTICOS Y REDES DE DATOS**

- Fundamentos de sistemas operativos. Entornos Windows y Linux.
- Arquitectura de ordenadores personales y servidores. Sistemas de almacenamiento NAS y SAN.
- Arquitecturas de red. Ethernet, Gigabit Ethernet y 10 Gigabit Ethernet. Modelo OSI y

eredua eta TCP/IP arkitektura.  
Switchinga eta routinga. VLANak eta sareen segmentazioa.

- Sareko protokoloak eta zerbitzuak: IPv4, IPv6, DNS, DHCP, NTP eta PTPrako sarrera.
- Sareen eta zerbitzuen monitorizazioa eta oinarrizko kudeaketa.
- Tresna ofimatikoak eta dokumentazio teknikoa.

arquitectura TCP/IP. Switching y routing.  
VLANs y segmentación de redes.

- Protocolos y servicios de red: IPv4, introducción a IPv6, DNS, DHCP, NTP y PTP.
- Monitorización y gestión básica de redes y servicios.
- Herramientas ofimáticas y documentación técnica.

### SAREETAKO TEKNIKARIA

- Audio laguntzailea
- Plato laguntzailea
- Sare laguntzailea
- Sare laguntzailea\*
- Laguntzaile teknikoa
- Kameraria
- Unitate Mugikorreko gidaria
- Mantentze Orokorreko arduraduna
- Produkzio ingeniaria
- Proiektu ingeniaria
- Argi teknikaria
- Mantentze elektronikoko langilea
- Operadorea
- Telebista Operadorea
- Audio teknikaria
- Mantentze eta Instalazio teknikaria
- Mantentze Orokorreko teknikaria
- Mantentze elektronikoko teknikaria
- Sareetako teknikaria
- Kontrol eta soinu teknikaria
- Mantentze teknikaria
- Garatzaile programatzailea
- Euskarri digitaleko teknikaria
- Sistemen euskarria
- Sistemetako teknikaria, komunikazio profila
- Sistemetako teknikaria, aplikazioen garapen profila

### TÉCNICO/A DE REDES

- Ayudante de audio
- Ayudante de plató
- Ayudante de redes
- Ayudante de redes\*
- Ayudante técnico/a
- Cámara
- Chófer/esa de unidad móvil
- Encargado/a de mantenimiento general
- Ingeniero/a de producción
- Ingeniero/a de proyectos
- Luminotécnico/a
- Oficial de mantenimiento electrónico
- Operador/a
- Operador/a TV
- Técnico/a de audio
- Técnico/a de mantenimiento e instalaciones
- Técnico/a de mantenimiento general
- Técnico/a de mantenimiento electrónico
- Técnico/a de redes
- Técnico/a de control y sonido
- Técnico/a de mantenimiento
- Desarrollador/a programador/a
- Técnico/a de soporte digital
- Soporte de sistemas
- Técnico/a de sistemas comunicaciones
- Técnico/a de sistemas desarrollo de aplicaciones

### 3. ERANSKINA Izena emateko gida espezifikoa

*Ondorengo lerroetan jasotakoak informazio-balioa du soilik, eta deialdiaren prozesuen oinarrien alderdirik garrantzitsuenak laburbiltzen ditu; alegia, ez da juridikoki loteslea. Horregatik, komeni da oinarriak arretaz irakurtzea, horietan berariaz arautzen eta jasotzen baitira hautaketa-prozesuen alderdi guztiak.*

#### **EITB-REN ENPLEGU-DEIALDI PUBLIKOETAN IZENA EMATEKO PROZESURAKO GIDA**

- Deialdi honetan **izena emateko eskabideak aurkezteko epea** EUSKAL IRRATI TELEBISTA ente publikoaren web korporatiboko "deialdi publikoak" atalean prozesuaren **oinarrietan ezarritakoa izango da.**
- Epe hori amaitu ondoren, ez da izen-ematerik onartuko.
- Izen-ematea adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidaltzen ez dutenek ez dute parte hartzeko aukerarik izango.

**Eskaerak bidali diren egiaztatzea komeni da, hots, ez direla bidaltzeke geratu zirriborroetan. Bidalitako eskaerek bakarrik izango dute prozesuan parte hartzeko aukera.**

Atxikita doa izena emateko gida, xehetasun gehiagorako:

#### **IZENA EMATEKO GIDA**

1. Ezinbestekoa da izena eman nahi duzun prozesuaren **oinarriak arretaz irakurtzea**, prozesuaren alderdi guztiak arautzen dituen dokumentua baita.

Izena emateko eskabideak aurkezteko epea EUSKAL IRRATI TELEBISTA ente publikoaren web korporatiboaren "deialdi publikoak" atalean dauden prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarritakoa izango da.

**\* Gogoratu, behin BIDALI botoia sakatuta, ezingo duzula aldaketarik egin. Bidalketa egin beharko da propio horretarako ezarritako epearen barruan.**

2. Izena emateko prozesuaren helburua da hautaketa-prozesuetan parte hartzeko aukera ematea. Horregatik, ezinbestekoa da izena emateko eskaera bidaltzea izena emateko epea amaitzeko eguna eta ordua baino lehen. Izen-ematea adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidaltzen ez dutenek ez dute parte hartzeko aukerarik izango.
3. **EITBren webgunea izango da izena emateko eta egiaztagiri guztiak aurkezteko bide bakarra.** Ez dira kontuan hartuko arestian adierazitakoaz bestelako bide batetik jasotako izen-emateak eta egiaztagiriak.

4. Parte hartu ahal izateko, **oinarrietan exijitutako eskakizunei buruzko eremu guztiak bete** beharko dituzu izena emateko formularioan, kasuan-kasuan eskatzen zaizun dokumentazioa aurkeztuta.
5. Hautagaiei eskatzen zaie **irakur ditzatela** parte hartu nahi duten prozesuaren **oinarriak** eta egiaztagiriak egoki aurkezteko gida berriro, edozein dokumentu atxiki aurretik. Halaber, parte hartu nahi duten pertsoneri oinarri bakoitzean **ezarritako dokumentazioa bakarrik aurkezteko** eskatzen zaie, **ez baita balioetsiko oinarrietan jasota ez dagoen dokumentaziorik**.
6. Izena emateko formularioan, bi atal hauek bete behar dira:
  - a. **ESKAKIZUNEN** atala: NANA indarrean, gidabaimena indarrean, lan bizitzaren ziurtagiria, sartzeko titulu ofiziala eta euskara mailaren ziurtagiri ofiziala.
  - b. **MEREZIMENDEN** atala: merezimendu profesionalak eta merezimendu akademikoak.
7. Izena emateko epea amaitu ondoren, behin-behinean onartuen zerrendak eta zuzenketak egiteko epea argitaratuko dira. Epe hori **eskakizunen ataleko dokumentuak zuzentzeko baino ez da izango**.
8. **Merezimenduen ataleko egiaztapenei** dagokienez, jakinarazten da **prozesuan meritatzeko egiaztapenak sartzeko aldi bakarra egongo dela, inskripzio-aldiarekin bat datorrena**.

**EZ DA EGONGO MEREZIMENDUAK AURKEZTEKO EDO ZUZENTZEKO ALDIRIK GERO.** Hautagaiek Ebaluazio Epaimahaiak merezimendu profesional eta akademikoen atalean ematen dien behin-behineko puntuazioa erreklamatu ahal izango dute, izena emateko aldian aurkeztu duten dokumentazioaren arabera.
9. Izena emateko epea amaituta, **zuzenketak egiteko epea argitaratuko da**, eta, behin zuzenketak eginda, ONARTUEN ETA EZ ONARTUEN ZERRENDA.
10. Prozesuari buruzko informazio guztia webgunean jakinaraziko da. Hautagai bakoitzaren erantzukizuna da argitalpenak maiz kontsultatzea.

#### 4. ERANSKINA. AKREDITAZIO AKADEMIKOAK ETA PROFESIONALAK AURKEZTEKO GIDA

*Ondorengo lerroetan jasotakoak informazio-balioa du soilik, eta deialdiaren prozesuen oinarrien alderdirik garrantzitsuenak laburbiltzen ditu; alegia, ez da juridikoki loteslea. Horregatik, komeni da oinarriak arretaz irakurtzea, horietan berariaz arautzen eta jasotzen baitira hautaketa-prozesuen alderdi guztiak.*

##### ALDERDI OROKORRAK

- Parte hartu nahi den prozesuaren **oinarriak berriro irakurtzeko** eskatzen dizugu. Oinarri guztiak ez dira berdinak; lanpostu jakin baterako oinarriak lanpostu horren berezitasunen arabera dira.
- Har ezazu kontuan oinarrietan **berariaz** jasotzen dena bakarrik hartuko dela merezimendutzat.
- Ez aurkeztu prozesuaren oinarri arautzaileetan jasota ez dagoen dokumentu gehigarririk.
- Hainbat prozesutan izena emanda bazaude, hartu kontuan daukazun egiaztagiriek ez dutela prozesu guztietarako balioko. Beraz, oinarriei jarraituz, alde aurretik hautatu kasu bakoitzean erantsi behar dituzun egiaztagiriak.
- **Prozesuetako merezimendu akademiko eta profesionalak sartzeko aldia EUSKAL IRRATI TELEBISTA** erakunde publikoaren web korporatiboaren "deialdi publikoak" ataleko prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarritakoa izango da, eta **bat etorriko da prozesuan izena emateko epearekin. EZ DA GEROAGOKO UNERIK EGONGO DOKUMENTAZIO GEHIAGO SARTZEKO.**
- **EITBren webgunea izango da egiaztagiriak aurkezteko bide bakarra.** EZ dira kontuan hartuko arestian adierazitakoaz bestelako bide batetik jasotako agiriak.
- **BIDALI botoia sakatu aurretik, egiaztatu hauek:**
  - **Bete dituzula formularioko eremu guztiak.**
  - **Ez zaizula ahaztu aurkeztu beharreko egiaztagiririk.**
  - **Dokumentu guztiak behar bezala ireki eta bistaratzen direla.**
  - **Aurkeztutako egiaztagiriak dagokien atalean daudela.**
  - **Ez duzula aurkeztu punturik ematen ez duen dokumentazio gehigarririk. Beraz, ezabatu sobera dena.**

**\*Gogoratu, behin BIDALI botoia sakatuta, ezingo duzula aldaketarik egin. Bidalketa egin beharko da propio horretarako ezarritako epearen barruan.**

## MEREZIMENDU AKADEMIKOAK

Proba baztertzaila(k) gainditu duten hautagaien merezimendu akademikoak bakarrik zenbatuko dira, prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

- **HIZKUNTZEN blokea**

Prozesu guztien oinarri arautzaileek adierazten dutenaren arabera, atal honetan merezimenduak balioestea nahi bada, kasuan-kasuan adierazitako mailaren **egiaztagiri ofiziala** aurkeztu behar da. Gainera, hizkuntza berean maila desberdinak egiaztatzen badira, maila gorena bakarrik balioetsiko da. Beraz:

- Atal honetan punturik lortu nahi bada, EZINBESTEKOA da oinarrietan ezarritako hizkuntzaren eta hizkuntza-mailaren EGIAZTAPEN OFIZIALA aurkeztea. Egindako ikastaroen frogagirik, online maila-probek, matrikulek, ofizialak ez diren gainerako ziurtagiriek, etab., ez dute punturik ematen. Ez itzazu aurkeztu.
- Oinarrietan jasotako hizkuntzek bakarrik puntuatzen dute. Beraz, ez sartu beste hizkuntzen egiaztagiririk.
- Hizkuntza jakin batean maila desberdinetako egiaztagiriak badituzu, aurkeztu maila handienekoa soilik.
- Egiaztagiri ofizialen balorazioa egiteko, iturri hauetara joko da:
  - Euskara: [EUSKARAREN JAKITE-MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULUAK ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETU, ETA HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKO BATERATUKO MAILEKIN PAREKATZEA. - Hizkuntza Eskola Ofizialak - euskadi.eus](#)
  - Ingelesa eta frantsesa: [2203047e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

- **PRESTAKUNTZAREN blokea**

Prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarriko da Ebaluazio Epaimahaiak zein prestakuntza balioetsiko dituen merezimendu akademikoen atalean.

Prozesu bakoitzean merezimendutzat hartuko diren prestakuntzak zehatz-mehatz identifikatzen dira oinarrietako bakoitzean. Irakurri arretaz parte hartu nahi duzun prozesuaren oinarriak, jakiteko zer egiaztagiri aurkeztu behar duzun, Ebaluazio Epaimahaiak balioetsi dezan.

**Oinarri bakoitzaren prestakuntza-blokean, prozesu bakoitzean balioetsiko diren prestakuntzak zehazten dira.**

Hau da prestakuntzen sailkapen orokorra:

**PRESTAKUNTZA ARAUTUA:** Hezkuntza eta Lanbide Heziketako **Ministerioak araututako prestakuntza** da, zeinaren bidez **lortzen baita titulu ofizial bat**: Lanbide Heziketako erdi-mailako gradua (teknikaria), Lanbide Heziketako goi-mailako gradua (goi-mailako teknikaria), unibertsitate-gradua (gradua), masterra (masterra) eta doktoretza (doktorea). Bloke honetan balorazioa egiteko, iturri hauetara joko da:

- Lanbide Heziketa: [Tituluak, mailaka – LH osoa | Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa](#)
- Unibertsitateko prestakuntza: [Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroa \(RUCT\) - Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioa \(educacion.gob.es\)](#)

Bloke honetan kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Prozesuan parte hartzeko aukera eman dizun sarbide-titulazioa EZ DA MEREZIMENDUtzat hartuko.
- Inola ere ez da merezimendutzat hartuko prozesuan parte hartzeko aukera eman dizun titulazioa baino maila baxuagoko titulazio arauturik.

**PRESTAKUNTZA ARAUTUGABEA:** Prestakuntza hori **ez da ofiziala**, eta pertsonak lanpostu batean eta lanbide-bizitza osoan lortu behar dituzten gaitasunetan trebatzera eta prestatzera bideratuta dago.

Ilido horretan, prestakuntza arautugabe nagusiek barnean hartzen dituzte enplegurako lanbide-heziketa, gradu, graduondoko eta master propioak, edo espezializazio-ikastaroak edo zeharkako ikastaroak.

**Irakurri arretaz oinarriak, jakiteko zer prestakuntza arautugabe hartzen den merezimendutzat parte hartu nahi duzun prozesuan.**

Bloke honetan puntuak lortzeko kontuan hartu beharreko alderdiak:

- Prestakuntza arautugabeak **lotura izan behar du lanpostuarekin, edo zeharkakoa izan behar da\***, oinarri bakoitzean zer zehazten den.

*\* Zeharkako prestakuntzat hartzen da ikaskuntza arlo hauetakoren batean ardazten duena:*

- *Trebetasun sozialei buruzko prestakuntza*
  - *Segurtasunari eta Lan Osasunari buruzko prestakuntza*
  - *Erabiltzailearen tresna informatikoei buruzko prestakuntza*
  - *Aukera-berdintasunari buruzko prestakuntza*
  - *Aniztasunari eta inklusioari buruzko prestakuntza*
- Egiaztagiriak ikastaroaren **iraupena adierazi behar du ORDUtan edo ECTStan**, eta, **horrez gain**, oinarri bakoitzean adierazitako **ordu kopurua bete behar du. Prestakuntza-datak ere adierazi behar ditu.**
  - EITBk antolatutako prestakuntza-ikastaroak, oinarrietan ezarritako iraupena betetzen badute, automatikoki zenbatuko dira; beraz, EZ da aurkeztu behar EITB Taldeak antolatutako prestakuntzen ziurtagiririk.
  - Bekek, sariak edo mintegietara joateak ez dute punturik ematen.

*Merezimendu akademikoaren atalak gehieneko puntuazioa ezartzen du bloke bakoitzerako, eta, beraz, egiaztagiri ugari aurkezteak ez du nahitaez eragingo puntu gehiago jasotzea.*

## MEREZIMENDU PROFESIONALAK

Proba baztertzaila(k) gainditu duten hautagaien merezimendu profesionalak bakarrik zenbatuko dira, prozesu bakoitzaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Gogoratu arretaz irakurri behar dituzula parte hartu nahi duzun prozesuaren oinarrietan berariaz adierazitako lan-esperientzia aurkezteko eta egiaztatzeke oinarriak.

Kontuan izan oinarri bakoitzean adierazten direla zein alditan zenbatzen diren lan egindakoaldiak. Egiaztatu ezazu aurkeztu dituzun ziurtagiriek eskakizun hori betetzen dutela.

Interesatuta zauden prozesurako merezimendu dira lanbide-esperientziako kasu hauek: Irakurri arretaz oinarriak, jakiteko parte hartu nahi duzun prozesuak zein esperientzia-kasu barne hartzen dituen, eta, ondorioz, zein egiaztagiri aurkeztu behar duzun:

- **Lanbide-esperientzia, 1. kasua: OINARRI HAUETAN DESKRIBATUTAKO FUNTZIOAK BETE IZANA EITB MEDIAN ARAUBIDE ARRUNTEKO LAN-KONTRATUAREKIN.**

Kasu honetan, oinarrietan deskribatutako funtzioetan emandako egun egiaztatuengatik **soilik** emango dira puntuak, baldin eta prozesu bakoitzeko oinarrietan adierazitako enpresan eta aldian araubide arrunteko lan-kontratuan jardun bada.

Atal honetan, **horretarako ezarritako eremuan**, EITBk emandako ziurtagirian agertzen diren **egunak adierazi** beharko dituzu. Ziurtagiri horretan, parte hartu nahi duzun prozesuan adierazitako kategoria zehatz-mehatz adieraziko da. Ez ahaztu **ziurtagiri hori aurkeztea**.

- **Lanbide-esperientzia, 2. kasua: "EITB MEDIAN BESTE FUNTZIO BATZUK EGITEA FUNTZIO-EREMU BERAREN BARRUAN, ARAUBIDE ARRUNTEKO LAN-KONTRATUAREKIN .**

Kasu horretan, oinarriek adierazten dute *soilik zenbatuko direla oinarri bakoitzean adierazitako enpresan eta aldian funtzio-eremu bereko beste eginkizun batzuk araubide arrunteko lan-kontratuarekin egin izana egiaztatzen duten egunak*.

Atal honetan, EITBk emandako **ziurtagiria erantsi beharko duzu**, eta, horretarako ezarritako eremuan, zure intereseko prozesuan **FUNTZIO-EREMU** gisa agertzen den kategoriako egunak adierazi (ikus eranskina oinarri bakoitzean).

Garrantzitsua. Oinarriek honako hau adierazten dutela gogorarazi du:

- "B" kasuan batzeko, gutxienez 6 hilabeteko aldia (180 egun) zenbatu behar duzu "A" kasuan.
- "B" kasuan lortutako puntuazioak ezin izango du inolaz ere gainditu "A" kasuan lortutakoa.

- **Lanbide-esperientzia, 3. kasua: "EITB MEDIA S.A.-RENTZAKO INFORMAZIO-ZERBITZUAK ETA/EDO EDONOLAKO ENTRETENIMENDU-PROGRAMAK EKOIZTEN DITUZTEN ERAKUNDEEK SINATUTAKO KONTRATUARI ATXIKITAKO OINARRI HAUETAN DESKRIBATUTAKO FUNTZIOAK EGITEA".**

Kasu horretan, oinarri bakoitzean adierazten denaren arabera, kanpoko ziurtagiri hau bakarrik hartuko da kontuan:

- **Oinarrietan jasotako profilean** eta eginkizunetan **EGUNETAN** emandako aldiak badira eta/edo adierazi interesatzen zaizun **KATEGORIA ETA PROFILA**.
- Ziurtagirian adierazitako aldiak bat etorri behar du oinarrietan adierazitakoekin.
- Zerbitzuak eman dituen erakundeak sinatuta eta zigilatuta egotea.
- Zerbitzuak ematen dituen erakundearen eta EITB Media S.A.Uren artean sinatutako kontratuari atxikita dagoela egiaztatzen badu (ikus oinarriak).

Gogorazi du, aurreko kasuetan bezala, ezinbestekoa dela egunak dagokion eremuan adieraztea eta egiaztatzea eranstea.